

JOSE LUIS ALVAREZ  
ENPARANTZA  
TXILLARDEGI<sup>REN</sup>  
OMENEZ - JARRAIPENA


Txillardegiri

bat  
Soziolinguistika  
aldizkaria

72. zenb. / 2009 (3)

BAT Aldizkariko irakurleak badaki Jose Luis Alvarez Enparantza *Txillardegiri* eskaini geniola honen aurreko zenbakia, 71. zenbakia, alegia. Akats tekniko bat tarteko, baina, ezin izan zen honako artikulua hau argitaratu eman. Orduko akats hura konpondu nahirik hona hemen Kontseiluaren izenean Iñaki Lasak idatzirik artikulua.

*Argitalpen Batzordeak*



## ESKERRIK ASKO, LAGUN! Jose Luis Alvarez Enparantza 'Txillardegiri', maitasunez

**Iñaki Lasak**

*Kontseiluko ildo politiko-instituzionalaren arduraduna*  
Helbide elektronikoa: [ilasa@kontseilua.org](mailto:ilasa@kontseilua.org)

Azken mende laurden luze honetan euskara eta haren normalizazioa izan dira gure bizitzaren ardatza. Euskara ikasiz lehenago, irakatsiz gero eta, azkenean, haren bilakaera soziolinguistikoa aztertuz eman dugu orain artekoa. Bidaia liluragarri hori ez da bakarka egiten, euskara normalizatzea ahalegin kolektiboa da eta, ondorioz, pertsona asko ezagutzeko aukera izaten da, ehunka ikaslek eta irakaslek, euskaltzalek eta langilek aberasten dute gure bizitza bide luzean. Horien artean, egon badaude, batzuk marka berezia uzten dutenak eta, ondorioz, maitasunez eta begirunez gogoratzen ditugu. Niretzat, Txillardegiri laguna, horietako bat izan da bere gertutasunarengatik, gardentasunarengatik, gizatasunarengatik, eta bere jakituriarengatik.

Urrun daude euskara irakasle garaiak baina gertu sentitzen ditut Txillardegiren hitzaldi ahaztezinak, hasieratik bukaerara interesgarriak, beti laburrak, eskuzabal eskainiak eta Piriniotako erreketako ura bezain fresko eta gardenak. Ez diot inoiz horrelakorik esan eta zor hori nuela sentitu dut beti. Eskerrik asko, lagun! Bidaia zaila errazagoa izan da zure makuluari esker.

Azken aldi honetan, beste behin, beregana jo dut ur freskoren bila Administrazioetatik maiz isurtzen den ur epel kutsatuak nazkaturik, oraingoan erabileraren auziak kezkatutik. Izan ere, denak ados jarri izan balira bezala, euskararen normalizazioak une honetan duen arazorik handiena erabilera omen da eta hizkuntza-politikaren ardura duten pertsonen hatz erakusleak guri zuzentzen digu, euskaldunoi, haiek euskara jakin dezagun egin omen duten ahalegin ikaragarriari ez diogulako arduraz erantzuten. Gu gara hizkuntza-politika arrakastatsua zikintzen duten alprojak.

*“Onartu beharko genuke, inolako arazorik gabe onartu ere, herritarrengandik jasotzen duen leialtasuna izaki hizkuntza baten biziraupenerako elikagai osasungarrietarikoa, euskaldun askok, zabar eta utzikeria handiz tratatu duela euskara. Euskaldunon arduragabekeria dela euskararen etsairik handiena. Zerbaitek galaraz badezake guztiz hizkuntza bat, zerbait baldin bada hilgarria hizkuntzarentzat, hiltunen arduragabekeria eta axolagabekeria da.”* Eusko Jaurlaritzako Hizkuntza Politikarako Sailburuordetza.

Zergatik izango da ez dugula gure burua islatutik ikusten esaldi horretan? Zergatik iruditzen zaigu iraingarria? Zergatik izango da gure errealitateak ez duela kontatzen denarekin zerikusirik?

Izan ere, azken zazpi urteotan Hizkuntz Eskubideen Behatokiak milaka kexa jaso ditu, kexa horietako bakoitza zapuztutako komunikazio-saio bat izan da. Hau da, euskara erabili nahi eta ezin izan duen herritar bat dago horietako bakoitzaren atzean. Baina, egia esan, euskaldunok, ez dugu Behatokiaren beharrik jakiteko egunean zenbat aldiz zapuzten diren euskarazko komunikazio saioak eta horietako zenbatek eragiten dizkiguten ondorio emozional negatiboak. Inork esan behar du, justiziazkoa delako, euskara erabili nahi izateak eta ezin izateak hizkuntza hautuan eragiten duten ondorio emozionalak dituela euskaldunak bakarrik pairatzen dituenak. Beraz, erabileraren auziaren txanponaren beste aldean zer dagoen azaldu beharra dago, Administrazioen bonbardaketa informatiboaren erdian euskara erabili nahi dugunon errealitate ezkutua azaldu beharra dago, osasunez.

Horra hor, arazoa: dugun ezagutza-tasari zer erabilera tasa dagokio? Zer erabilera-tasa beharko genuke euskara kopuru onargarritan erabiltzen dela esan ahal izateko? Zertan oinarritzen dira euskara gutxi erabiltzen dela esaten dutenak?

Kezka horiek buruan genituela jo genuen Txillardegirengana azkenekoz eta eredu matematikoa eta erabilera harremanetan jartzen dituen lanarekin topo egin genuen. Gure ustez, lan hau da, euskararen normali-

---

*Gezurra badirudi ere, euskaldunak zenbat garen esateko zailtasun ugari dugu, alde batetik, iturri desberdinek kopuru desberdinak ematen dituztelako, bestaldetik, azterketaz azterketa-irizpideak aldatzen direlako eta azterketa batetik bestera erabiltzen diren irizpideak desberdinak direlako.*

**Orain arte hizkuntza-politika desorekatua izan dugu, garrantzia hainbat kasutan ezagutzari eman zaio eta, esan liteke, hizkuntza-politika nagusiki ezagutza politika izan dela eta ez dela indarrez lan egin gizarte espazioak euskalduntzeko.**

zazioari Txillardegik egindakoen artean ekarpenik handiena egiten diona eta, bestalde, esan liteke ahaztuena dela azken aldi honetan erabilerari buruz zer-nolako mezuak zabaltzen ari diren kontuan hartuta. Lehen kontaktu horien emaitza dira 2006.eko ekainaren 7an Donostiako Koldo Mitxelena Kontseiluak antolatutako "En castellano por favor" izeneko jardunaldiak. Jardunaldiotan Txillardegi lagunak eredu matematikoaren azalpen laburra bezain argigarria egin zigun eta euskara gutxi erabiltzen ote den zalantza jarri zuen. Beraz, jardunaldi haietan eta Txillardegik argitaratutako liburuan plazaratutako hainbat ideiaren inguruko hausnarketa egin nahiko nuke irakurleentzat interesgarriak izan daitezkeelakoan.

## **EUSKALDUN KOPURUAZ**

Hona hemen lehen arazoa. Izan ere, erabilera tasak estuki erlazionatuta daude ezagutza-tasekin, zenbat eta euskaldun gehiago egon orduan eta errazagoa da hizkuntza erabiltzea logikoa den bezala. Gezurra badirudi ere, euskaldunak zenbat garen esateko zailtasun ugari dugu, alde batetik, iturri desberdinek kopuru desberdinak ematen dituztelako, bestaldetik, azterketaz azterketa-irizpideak aldatzen direlako eta azterketa batetik bestera erabiltzen diren irizpideak desberdinak direlako. Datu batzuk inkestek ematen dizkigute, maiz zalantza metodologikoak eragiten dizkiguten inkestek hain zuzen ere, eta beste kasu batzuetan zentsutik hartzen dira baina kategorია asko oso era aldrebasean erabiliz.

Bereziki kezkarria da, esate baterako, sistema berean aldi batetik bestera egiturazko aldaketak egitea IV. Mapa soziolinguistikorekin gertatu den bezala. Izan ere, lehen hiru mapetako datuen oinarria zentsuan badugu ere, Administrazioak, ezagutzen ez ditugun arrazoiengatik, datu-iturria aldatzea erabaki du inkesta bihurtuz, eta horrek mapen arteko konparazioak eragotzi egiten ditu.

Eusko Jaurlaritzaren mendeko den Eustatek eta Espainiako Gobernuaren menpeko den INEk, hiztunen kategorizazioa egitean (euskalduna, elebidun hartzailea, erdaldun elebakarra...) bakoitzak bere interesen arabera eraikitzen ditu kategoría horiek, zentsuko galdesortan agertzen diren bi galdera/erantzunak nahi bezala konbinatuz. Honela 2001 urteko 'Biztanleria eta etxebizitza' zentsuan, Espainiako INE institutuak EAEn 15 urtetik gorako 882.707 euskaldun zenbatu zituen bitartean Eustatek 352.000 gutxiago (530.700 euskaldun) zenbatu zituen. Ikuspuntu zientifiko batetik hori ulertezina izanen litzateke, biek ala biek 2001eko Biztanleriaren eta etxebizitzaren zentsua izan zutelako datuen iturburu.

Baina badira adibide berriagoak ere, 2006ko Biztanleria eta etxebizitza estatistikan Eustatek egin duen datuen estimazioa, esaterako. Estatistika hau 2001eko 'Biztanleria eta etxebizitza' zentsua eguneratzeko egiten da, hau da, zentsu batetik bestera pasatzen diren hamar urte horien erdialdera biztanleria eta etxebizitzari buruzko datuak eskaintzeko hel-

buruz. Bada, 2006ko estatistika honetan orain arte erabilitako metodolo-  
gia goitik behera aldatu dute eta euskararen ezagutzari dagokionez,  
2006ko datuak 2001eko zentsuaren estimazio batean oinarrituko dira.  
Estimazio hori egiteko erabili den metodologia (haztapan-sistema berezi-  
ki), besterik ez esateagatik, kuestionagarria da.

Gainera, zentsutik ateratzen diren datuak ez datoz bat inkesta sozio-  
linguistikoei ematen dizkigutenekin. Zabarkeria horren ondorioz, ez  
dago ezagutzerik zenbat garen eta logikoa den bezala hori ez badago gar-  
bi asko edo gutxi erabiltzen ote dugun nekez zehaztu liteke.

## **EUSKALDUNON HIZKUNTZAREN KALITATEAZ**

Orain arte hizkuntza-politika desorekatua izan dugu, garrantzia hainbat  
kasutan ezagutzari eman zaio eta, esan liteke, hizkuntza-politika nagusi-  
ki ezagutza politika izan dela eta ez dela indarrez lan egin gizarte espa-  
zioak euskalduntzeko. Horrek prozesua larriki desorekatu du baina,  
Administrazioek irizpide kuantitatiboa erabili dute haien politikaren  
ustezko arrakastaren frogara gisa. Hau da, zenbat eta euskaldun gehiago  
izan orduan eta arrakastatsua da hizkuntza-politika. Hori dela eta,  
euskaldun kopuruak handitu behar dira kostala ala kostala politikaren  
garrantzia horrela neurtzen delako. Estatistika horien atzean “Pixka bat  
es mucho” ideari segituz hizkuntza behar bezain ongi menderatzen ez  
dutenak ere kontatzen dira kopuruak eta, ondorioz, arrakasta handitze-  
ko xedez; baina kalitaterik gabeko handitze hori, erabilera-tasek kuestio-  
natu egiten dute. Erabilera da huts egiten duena hizkuntza-politikaren  
arduradunen ustez. Hala ere, errealitatea egoskorra da eta maiz ateratzen  
da argitara, denok dakigu hezkuntza-sistemak eredu sistema kaltega-  
rriak eraginda ez duela lortzen belaunaldi berriak osorik euskalduntzea  
eta gainera Eusko Jaurlaritzako Hezkuntza Sailak berak egindako azter-  
ketak ematen dituen datuek argi adierazten dute D ereduaren ere ikasleen  
heren batek ez duela lortzen Europako gutxieneko B2 maila ere.

Komunikazio-zailtasunak dituenak, hizkuntza kalitatez ezagutzen  
ez duenak, kasu guztietan elebiduna den neurrian eta beste hizkuntza  
hobeki ezagutzen duen neurrian, gaztelania edo frantsesa hautatuko ditu  
usuen komunikazio-hizkuntza, gizakion artean komunikazio-beharrek  
agintzen dutelako. Giza harremanetan ikuspegi pragmatikoa nagusitzen  
da eta ezin da mantendu egoera bortxatua denboran zehar. Beraz, komu-  
nikazio-zailtasunak dituen estatistikoki euskaldun jotzen badugu erabi-  
lera-tasa txikia dela irudituko zaigu.

Administrazioak, arestian esan dugunarengatik, hau da hizkuntza-  
politikaren arrakasta ikuspegi kuantitatiboz neurtzeko joerarengatik,  
etengabe jotzen du frogak samurtzera, zailtasunak dituen ere euskaldun  
behar baitu estatistikak lortzeko. Zinez kezagarria da Hizkuntza Poli-  
tikarako Sailburuordetzako kideei entzutea irakastereduen erreformaren

---

*Arazoa, beraz, gardenki  
lokalizatu dugu,  
erabiltzeko baldintzak  
sortzea da hizkuntza-  
politika egoki batek egin  
beharko lukeena eta  
horretarako bi lan ildo  
nagusi daude. Alde  
batetik, kalitatezko  
ezagutzaren  
unibertsalizazioa eta  
gizarte espazioen  
euskalduntzea.*



---

*Hizkuntz Eskubideen  
Behatokiak azken  
urteotan salatu duenez,  
euskara erabili nahi  
izateak maiz alboko  
kalte-ondorioak sortu  
dizkio euskaldunari. Kasu  
batzuetan larriak,  
herritarren atxiloketak,  
herritarren kontrako  
epaiak eta abar, eta beste  
batzuetan kalte  
arinagoak baina kalteak  
beti ere, diru-galerak,  
aukeren galtzea,  
gestioetan berandutzea,  
etab.*

aurrean Europako B2 beharrean B1 eskatu behar dela, horixe dela derri-gorrezko eskolatzea bukatu ondoren, ikasleak ebaluatzeko hartu behar dugun erreferentzia. Erreferentzia zenbat eta baxuagoa izan orduan eta arazo komunikatibo gehiago izango dugu baina, bestaldetik, estatistikak lodiagoak izango dira eta ondorioz, hizkuntza-politika "arrakastatsua". Hizkuntza politikak ez badu huts egin, euskaldun kopurua altua bada eta hala ere, erabiltzen ez bada, norbaitek izan behar duenez errua "euskaldunon axolagabekeria" dela ondorioztatu dute berriro ere gertatzen denaren erantzukizuna alderik ahulenean jarriz, biktima erantzule bihurtuz.

IV. inkesta soziolinguistikoan argitaratutako datu batek erakarri du gure arreta neurri handi batez esaten ari garena baieztatzen duelako. Izan ere, euskal elebidunek, hau da euskara gaztelania baino hobeki erabiltzen dutenek, euskararen kalitatezko ezagutza dutenen artean % 98k EAEn nagusiki euskara erabiltzen dute edo gutxienez gaztelania beste, hau da, ia denek erabiltzen dute maiz. Oreaktuen kasuan %71,7 dira euskara gehiago edo gaztelania beste erabiltzen dutenak. Kopuruok ikaragarri altuak dira, euskara gutxi erabiltzen dela zalantzan jartzen dutenak. Beraz, batz bestekoa jaisten dutenak, euskara makurren ezagutzen dutenak dira. Ondorioz, euskararen kalitatearen eta erabileraren artean erlazio zuzena dago eta ondoriozta liteke euskara ongi ezagutzen dutenek erabili egiten dutela. Harago joan gaitezke hari honetatik tiraka. Izan ere, Nafarroan, euskara ofiziala den zonaldean euskal elebidunek % 93,1ek erabiltzen du euskara gehiago edo gaztelania beste eta oreaktuen artean %58,7k. Beraz, kopuruak zertxobait txikiagoak badira ere altuak dira oraindik ere. Kopuru horietan Nafarroako Gobernuaren hizkuntza-politikak zerikusia duen ustekoak gara aukera urriagoak daudelako EAEn baino politikaren desegokitasunaren ondorioz. Dena den, Nafarroaren kasuan bada beste datu esanguratsu bat, izan ere, Banku edo Kutxetan, anbulatorioan, udaletxeko zerbitzuetan denek edo ia denak dakitenean % 80k baino gehiagok euskara erabiltzen dute. Ikaragarri altua iruditzen zaigu datu hau eta dudarik gabe, euskararekiko fidelitasun maila handia erakusten duena. Kopuru hauek erabat deuseztatzen dute propaganda ofiziala.

Baina goazen aurrerago: Nafarroaren kasuan berriro ere, erdal elebidunen artean, hau da gaztelania euskara baino hobe hitz egiten dutenen artean, %16,2ak erabiltzen du gaztelania baino gehiago edo gaztelania beste eta %47,2ak eguneroko bizimoduan erabiltzen du. Zinez ikaragarria iruditzen zaigu datu hau are gehiago kontuan hartzen badugu pertsona horiek ez dutela hizkuntza egoki menderatzen. Horrek esan nahi du ahalegin militante handia egiten dela euskara erabiltzeko eta gainera, inguruko euskaldunen laguntza dutela horretarako. EAEn kasuan eta erdal elebidunen artean, %24,2k erabiltzen du euskara gaztelania baino gehiago edo gaztelania beste eta %41ak eguneroko bizimoduan erabiltzen du. Oso kopuru altuak direla uste dugu.

## ERABILTZEKO AUKERAZ

IV. Inkesta soziolinguistikoaren oharren artean EAeri dagokionez, honako hauek ikus daitezke:

- “Egia da, hala ere, euskara erabiltzeko baldintza egokiak behar direla, eta horiek oraindik EAeko esparru eta gune gutxitan ematen direla”.
- “Euskara erabiltzeko baldintzak egokiak direnean, elebidunek euskara erabiltzen dute eguneroko jardunean”.

Inkestaren egileek ezin argiago adierazi dute erabilera-tasa azaltzen duen arrazoi nagusietariko bat. Ez bada go aukerarik euskara erabiltzeko, bada, ez da erabiltzen baina, horra hor garrantzitsuena: erabiltzeko baldintzak egokiak direnean elebidunek euskara erabiltzen dute egunero. Gogoratu behar dugu elebidunak bi aukera dituela eta, hala ere, inkestan dioten bezala euskararen hautua egiten du elebidunak. Arazoa, beraz, gardenki lokalizatu dugu, erabiltzeko baldintzak sortzea da hizkuntza-politika egoki batek egin beharko lukeena eta horretarako bi lan ildo nagusi daude. Alde batetik, kalitatezko ezagutzaren unibertsalizazioa eta gizarte espazioen euskalduntzea.

Urte hauetan guztietan aplikatu den hizkuntza-politika desegokia izan da, besteak beste, desorekatua izan delako. Hau da, beti pentsatu dute arduradun politikoez pertsonak euskaldunduz euskaldunduko zirela gizarte espazioak, nahikoa izango zela euskaldunen presentzia espazioak euskalduntzeko eta sinesmen horrek bazter utzi du egin behar zen eta egin ez den gizarte espazioan euskalduntzea. Horrelaxe aitortzen da, esate baterako, “XXI. mende hasierarako hizkuntza-politikaren oinarriak. Oinarritzko txostena” izenekoan:

*“Eskola euskalduntzearekin, eta neurri apalagoan bada ere euskal irrati eta telebista publikoa edukitzearekin, ondorengo belaunaldiek behin-betikoz salbatuko dute euskara: hori uste izan du 80ko hamarkadako belaunaldiak, eta uste horren gainean eraiki da urteotan hizkuntza politikari eman zaion bultzada emateko beharrezko izan den adostasuna. Uste horrek, ordea, erdia ustel du”.*

Komunikazioa gizarte-ekintza da, pertsonen artean gertatzen dena eta espazio jakinetan burutzen dena. Bizi-espazio horiek euskalduntzea, beraz, ezagutza tasa handitzearekin batera garatu behar den lana da, eragingarritasunez egin ez dena. Inkestan horixe bera aitortzen da, baldintza egokiak esparru eta gune txikitik ematen dira baina, era berean, baldintzak egokiak direnean elebidunek euskara erabiltzen dute. Elebidunak direla aipatzea garrantzi handiko gaia da elebidunak bietatik edozein erabil dezakeelako eta hala ere euskara da erabiltzen dena. Horrek euskararekiko fidelitasuna adierazten du, HPSk defendatzen duenaren kontrakoa, alegia.

---

*Gure uste apalean, emozioen alorrak erabakitzen du uneoro elebidunak hartu behar duen erabakia. Elebidunak bi aukera ditu, ondorioz, etengabe hartu behar ditu erabakiak, denda batean sartzen denean, Administrazioan, inon zerbait ikasteko matrikula egin behar duenean, lantokian...*

## **ERDAL ELEBAKARRAREN ERAGINAZ**

Erabilerak une honetan duen oztopo nagusia, beraz, ez da euskaldunon axolagabekeria baizik eta, erdal elebakarraren diktadura. Izan ere, elebidunak badu aukera bietatik edozein erabiltzeko eta ondorioz, egoera desberdinetara egokitzeko gaitasuna du, ez ordea elebakarrak. Elebakarrak bere presentzia hutsarekin erabiltzen duen hizkuntza inposatzen du eta inposizio hori gertatzen da taldean gutxiengoa bada ere. Gainera hizkuntzen arteko distantzia handia da, hau da, gaztelaniaz dakien horrek ez du euskara ulertuko ezagutzen duen hizkuntza bakar horretan duen ezagupenari esker. Katalunian esate baterako, gaztelania eta katalana gertuago dauden neurrian katalan hiztunek euts diezaiokete haien hizkuntzari gaztelaniadunak nekez argudia dezakeelako ez duela ezer ulertzen. Euskal Herrian, elebakarraren diktadura bere gordintasun handienarekin manifestatzen da eta gutxiengoa izanik ere beti dira dominanteak eta haien ezjakintasanak elebidunok euskara hautatzea eragotziko du.

Bestalde, eragozpen hori etengabea denez, intentsoa, emozionalki gogorra euskaldunarentzat eta gupidagabea euskaldunen hizkuntza ohituretan eragingo du horiek aldatu arte. Beraz, nekez argudia liteke euskalduna axolagabea dela euskara erabiliz egiten dituen komunikazio-saioek erdal elebakarraren eraginez etengabe zapuzten direnean. Hizkuntza-politika egoki batek euskaldunon hizkuntza-eskubideak babestu beharko lituzke eta gaur egun, eskubideok etengabe eta sistematikoki urratzen dira Euskal Herri osoan, alor publiko eta pribatuan.

Hizkuntz Eskubideen Behatokiak azken urteotan salatu duenez, euskara erabili nahi izateak maiz alboko kalte-ondorioak sortu dizkio euskaldunari. Kasu batzuetan larriak, herritarren atxiloketak, herritarren kontrako epaiak eta abar, eta beste batzuetan kalte arinagoak baina kalteak beti ere, diru-galerak, aukeren galtzea, gestioetan berandutzea, etab. Beraz, ez bakarrik erdal elebakarrak, horiek menderatzen duten gizarte-sistemak ere eragozpenak sortzen dizkio euskaldunari horrek euskara erabili nahi badu eta logikoa den gisan, hizkuntza-ohituretan eragiten da horrela.

## **EUSKARA ERABILIEZINAK DITUEN ONDORIO EMOZIONALEZ**

Erabilerarekin erlazioan oso gutxitan hitz egiten da hizkuntza bat erabili nahi eta ezin izateak herritarri sortzen dizkion kalte emozionaleri buruz. Bi hizkuntza ezagutzen direnean eta ondorioz, bien arteko hautua egin behar denean, bat edo beste hautatzeko zer arrazoi erabiltzen den aztertzea garrantzitsua da. Orain arte dagoeneko, aipatu egin dugu hautu horretan hizkuntza-gaitasunak eta gizarte-inguruak eragiten dutela baina, izan badugu beste faktore garrantzitsu bat hizkuntzaren hautuan eragiten duena, hau da, hizkuntza bat edo beste erabiltzeak eragin diezaz-



kioken emozio negatibo edo positiboak edo hiztunaren pertzepzioz eragin lezaketenak.

Herritarrak uste badu euskara erabiltzeagatik helburuak errazago lortuko dituela, ez duela denborarik galduko, merezi duen arreta eskuratu duela, normaltasunez onartua izango dela, ulertua izango dela eta anonimatuari eutsiko diola euskara erabiltzen segituko du, komunikazio-saio bakoitzak errefortzatu egingo duelako erabiltzeko jarrera.

Beste alde batetik, ordea, herritarrak uste badu euskara erabiltzeagatik endredoak sor daitezkeela, denbora luzatuko dela edo kostuak handituko direla, bere nahia ez betetzeko aukerak daudela, azalpenak eman beharko dituela, tratu desegoki edo txar baten arriskua dagoela, deserosotasuna sortuko diola edota konnotazio politikoak sortuko direla euskara erabiltzeko joera kalteturik gertatuko da.

Gure uste apalean, emozioen alorrak erabakitzen du uneoro elebidunak hartu behar duen erabakia. Elebidunak bi aukera ditu, ondorioz, etengabe hartu behar ditu erabakiak, denda batean sartzen denean, Administrazioan, inon zerbait ikasteko matrikula egin behar duenean, lantokian... herritar elebidunak ezezagun batekin hitz egin behar duen aldioro zer hizkuntza erabili erabaki behar du eta erabaki horretan guztiz funtsezkoak dira emozioak. Gure esperientzia pertsonalean eta Behatokiak bildutako milaka kexetan oinarrituz, esan dezakegu gure emozioetan negatiboki eragiten duten gertaerak etengabeak direla, sistematikoak, maiz latzak eta gainera, gure egunerokotasunean baztertu ezinak dira.

Beraz, euskal elebidunak etengabe jasotzen du erabiltzearen aldeko diskurtsoa, euskararen alde egin behar dela esaten diogu modu desberdin asko erabiliz eta ikusi dugun bezala ez erabiltzearen ardura ere egotzen zaio. Hala ere, erabiltzeko hautua hartzen duenean mezu kontrajarria jasotzen du maiz emozionalki negatiboki eragiten dioten gertaerekin egiten duelako topo eta horrek zuzenean, emozionalki eta eraginkorki eragiten diolako.

Horiek guztiak eta beste batzuk esan litezke erabileraz, baina, erabileraren auzian benetan sakondu nahi duenak, irizpide garbiak nahi dituenak, Txillardegirengana jo behar duela uste dugu. Eredu matematikoa eta soziolinguistika harremanetan jarri dituen egilea da auzi konplexu horretan argia egin dezakeen adituatariko bat. Propaganda instituzional interesatuak talka egiten du Txillardegiren lanarekin, izan ere, lan horri esker honako ideia hauek garbi ditugu gaur:

1. Txillardegiren lanari esker euskararen gehienezko eta gutxienezko erabilera kalkula daiteke. Beraz, Administrazioek aplikatu besterik ez dute egin behar errealitatea ezagutzeko ez baita egokia usteetan oinarrituz hitz egitea
2. Elebidun kopurua handituz erabilera-tasa handitzen da baina, ez dira proportzio berean handitzen bi tasak elebakarren eraginez. Ele-



bakarraren presentzia hutsak duen eragin ikaragarria da indargabetu behar dena eta zeregin horretan ez du laguntzen egoeraren erantzukizuna euskaldun elebidunaren gainean zamatzeak.

3. Erabilera handitzeko, anisotropia edo euskaldunen konpaktazioa handitu behar da, elebidunen fideltasuna handitu eta elebidun-tasa handitu behar da.

4. Elebidunak nonbait erdia baino gehiago direlako euskara gehien-goia dela ondorioztatzea guztiz gezurrezkoa da eta hori maiz ahaztu egiten da. Euskaldun guztiak elebidunak gara eta ondorioz aukeratzeko ahal dugu nahi dugun hizkuntza. Euskara hautatzea erraza izatea da hizkuntza-politika egoki baten helburuetariko bat.

5. Arrazoi matematiko hutsengatik euskararen erabilera beti izango da ezagutza-tasa baino txikiagoa eta hori hiztun kopurua zenbat eta handiagoa izan orduan eta nabarmenagoa da. Ez du zentzurik harritzeak ezagutza erabilera baino handiagoa delako, matematikoki saihestezina da.

6. Azkenik, elebidunei utzikeria leporatzea zentzugabea da eta garbi adierazten du komunitate elebidunen baldintzapen matematikoen erabateko ezezagutza.

1984. urtean izan zen argitaratua UEUren eskutik *Elebidun gizartearen azterketa matematikoa* eta 2001.ean SEIren eskutik, *Hacia una sociolingüística matemática*. Irakurri beharreko liburuak erabileraz eta haren bilakaeraz zerbait ezagutu nahi duenarentzat.■